



## AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN ONDORIOZ HILDAKO BIKTIMEN SEME-ALABA UMEZURTZENTZAKO DIRULAGUNTZA.

Eskabidearekin batera aurkeztuko den dokumentazioa:

- a. Eskatzailearen eta, hala badagokio, haren legezko ordezkariaren nortasunaren egiaztapena: Europar Batasuneko estatu kide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan parte hartutako estatu bateko nazionalitatea dutenen kasuan, titularraren nazionalitatea jasotzen duen nortasun-agiri ofizial baten bidez edo pasaportearen bidez; gainerako herrialdeetako nazionalitatea dutenen kasuan, Atzerritarren Identifikazio Txartelaren (ANT) edo pasaportearen bidez, edo, hala badagokio, daukaten bizileku-baimenaren bidez.
- b. Onuradunaren ordezkariaren egiaztagiria, hala badagokio.
- c. Jaiotza-ziurtagiria edo familia-liburua, edo atzerriko dokumentu baliokidea. Adopzio-kasuetan, adopzioa eratzeko ebazpen judizialaren inskripzioaren Erregistro Zibilaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da, edo Familia Liburuaren edo atzerriko dokumentu baliokidearen bidez. Tutoretza-egoeretan, tutoretza eratzeko ebazpen judizialaren inskripzioaren Erregistro Zibilaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da, edo atzerriko dokumentu baliokidearen bidez.
- d. Interesdunaren erroldatze-ziurtagiria, laguntza-eskaera aurkezteko unean.
- e. Ama edo tutorea hiltzen denean erroldatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, edo, bestela, hil aurreko azken hamar urteetan EAEn benetan bizi izan dela eta erroldatuta egon dela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- f. Amaren edo tutorearen heriotza-ziurtagiria, Erregistro Zibilak emana.
- g. Heriotzaren kausa emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ekintzen ondorio dela egiaztatzen duen agiria, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ekintzen ondoriozko kondena-epai irmoaren bidez, ebazpen judizialaren bidez (autoak, probidentzia edo epai ez-irmoak), ikertutako delitua emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondoriozkoa delako zantzuak ondorioztatzen badira, edo Fiskaltzaren txostena, zentzu berean, edo emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ekintzen ondoriozko heriotzaren kausa egiaztatzen duen beste edozein dokumentu judizial edo polizial. Era berean, eskatzaileak aitortuta badauka emakumearen aurkako indarkeriagatiko umezurtz-prestazioa edo -pentsioa, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 224. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emandako ebazpena aurkeztu ahal izango da.
- h. ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortuta izanez gero, indarrean dagoen desgaitasun-mailaren egiaztapena, horretarako eskumena duen erakunde publikoak emana.
- i. Mendetasun-egoera aitortuta izanez gero, mendetasun-egoeraren egiaztapena, horretarako eskumena duen erakunde publikoak emana, mendetasun-maila eta gradu bakoitzaren barruko maila zehaztuta, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean eta hori garatzen duen araudian aurreikusitakoaren esparruan. Ikasketak eginez gero, ikasketen matrikularen edo prestakuntza-ikastaroa egin izanaren ziurtagiria edo frogagiria aurkeztu beharko da, dagokion zentroak emana. Hala badagokio, aurreko ikasturtearen erdia gutxienez gainditu izanaren ziurtagiria.

Ordainketa bakarreko aparteko laguntza (10.000 euro) eskatuz gero, a), b), c), d), f) eta g) ataletan aurreikusitako agiriak aurkeztu beharko dira, baita honako agiri hauek ere:

- Eskatzailea eta haren ama edo tutorea hil den unean EAEn erroldatuta egotearen ziurtagiria.

Laguntza ordaintzeko, Hirugarrenen Erregistroan alta eman beharko duzu.